

Bizkaia

Sestao

LA HUMANITARIA KOOPERATIBA COOPERATIVA LA HUMANITARIA



Etxebizitza hauek 1923an eraiki zituzten Bizkaiko Labe Garaiak enpresako langile-talde baten ekimenez. Estatuak eta Sestaoko Udalak emandako maileguen bitartez finantzatu zituzten. Kueto Gurutzea menditxoan daude, ikuspegi onak dituen eremu osasungarri batean; garai hartan udalerriko kanpoaldea bazen ere, Bizkaiko Labe Garaietatik oso gertu zegoen. Santos Zuntzunegik egin zuen etxeen proiektua, garai hartako udal-arkitektoak. Bartzelonan trebatutako ibilbide profesional luzeko arkitekto horrek etxebizitza sozialen proiektu ugari egin zituen, eta ederki eza-gutzen zituen bere herriko hirigintza-arazoak, proiektuak gauzatzera ageri den bezala. La Humanitaria kooperatiban Zuntzunegik hiru lerrotan antolatu zituen etxebizitza; hain zuzen ere, triangelu itxura eman zion multzoari, erdian lorategi bat zuela, bertan bizi zirenek erabiltzeko. Oinplano karratadun 33 etxe atxiki dira guztira, arkitektura xumekoak. Orotara 381.851 pezeta bideratu zituzten. Monumentu izandutu dute 2012an.

Estas viviendas fueron construidas en 1923 por iniciativa de un grupo de obreros de Altos Hornos de Vizcaya y se financiaron a partir de préstamos del estado y el Ayuntamiento de Sestao. Se sitúan en el alto de la Cruz de Kueto, una zona salubre y de buenas vistas, y que en aquella época era el extrarradio del municipio, pero muy cerca de la fábrica de Altos Hornos de Vizcaya. Fueron ideadas por Santos Zuntzunegui, quien por entonces era arquitecto municipal de Sestao. Este arquitecto, formado en Barcelona y con una dilatada carrera profesional, fue autor de numerosos proyectos de viviendas sociales y un buen conocedor de los problemas urbanísticos de su localidad, aspecto éste que se plasma en la realización de sus proyectos. En la Cooperativa La Humanitaria Zuntzunegui diseñó tres alineaciones de viviendas, dispuestas en forma de triángulo en torno a un espacio central ajardinado de uso comunitario. En total se trata de treinta y tres casas adosadas de planta cuadrada y sencilla composición arquitectónica, que tuvieron un coste total de 381.851 pesetas. Ha sido declarado monumento en 2012.